

## Aldundiak telelana ezarriko du, langileek lana eta familia errazago uztartzeko eta integrazioa sustatzeko

Borondatezkoa izango da, eta astean hiru egunez lan ez presentziala egingo da, eta bi egun bulegoan

Deskonexio digitalerako eta atsedenerako eskubidea onartzen ditu

Cristina González: “Lehentasuna izango dute adingabeak eta adineko mendekoak beren ardurapean dituztenek eta mugikortasun arazoak dituztenek”

**Gasteiz, 2020ko uztailaren 31.** - Arabako Foru Aldundiak telelana jarriko du aurrean, modalitate egonkor gisa, bertako langile funtzionario eta bitartekoentzat, aukera gehiago izan dezaten familia eta lana uztartzeko eta errazago integra daitezen mugikortasun urria edo gaixotasun jakin batzuk dituzten pertsonak. Borondatezkoa eta itzulgarria izango da, eta astean hiru egunez telelana egingo da, eta bi egunez lan presentziala.

Cristina González Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak eta Adolfo Lander Funtzio Publikoko zuzendariak gaur aurkeztu dute telelana arautuko duen dekretua, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko plantilla osatzen duten mila langile ingururen artean. Dekretu hori langileen ordezkariekin negoziatu da eta Foru Gobernu Kontseiluaren hurrengo bilkuran onetsiko da.

Cristina Gonzálezek azaldu duenez, telelana jartzearen bidez lortu nahi da “aukera gehiago ematea adingabeak eta/edo adineko mendekoak beren ardurapean dituzten langileei familia eta lana uztartzeko, bai eta lantokia etxetik urruti samar

dutenei ere. Gainera, tresna baliagarria da desgaitasuna, mugikortasun urria eta gaixotasun jakin batzuk dituzten pertsonak eta genero indarkeriaren biktimak integratzeko.”

“Horrekin guztiarekin batera, ekimen honekin lagundu nahi dugu mugikortasun jasangarriaren eredia bultzatzen, telelanak lekualdaketa gutxiago egitea baitakar, eta horrek energia aurrezte eta emisioak murriztea, eta laneko arriskuak prebenitzen laguntzen du”, erantsi du.

Gonzálezek adierazi du uste osoa duela telelana aldaketa palanka izango dela emaitzak lortzera bideratutako lanaren norabidean, eta aldundiko langileen konfiantza, autonomia, motibazioa eta errendimendua sustatuko dituela. “Sinetsita gaude horrek erakundeak arabarrei ematen dizkien zerbitzu publikoen eta lanaren kalitatea hobetzea ekarriko duela”.

Uste oso horrek oinarri bat dauka, alegia, 2018an egindako proiektu pilotua. Proiektu hartan, aldundiko langile talde bat telelanean aritu zen bederatzi hilabetez, eta oso balorazio positiboa egin zuten bai protagonista izan ziren langileek, bai haien lankideek, bai eta haien arduradunek ere. “Pandemia hilabete hauetan izandako esperientzia ere kontuan hartu dugu: martxoan, salbuespen moduan, telelana jarri genuen abian, eta emaitza onak eman ditu”.

### **Deskonexio digitalerako eskubidea**

Foru dekretuan ezarritakoaren arabera, telelana *borondatezkoa eta itzulgarria* izango da, eta modalitate horretan aritzeko aukera izango dute Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioek eta bitartekoek, baldin eta lanpostuan gutxienez urtebeteko antzintasuna badute eta etxean Interneterako konexioa eta informatikako ezagutza nahikoa badute, eta betiere haien eginkizunak modu ez presentzialean egiteko modukoak badira.

Beraz, kanpoan geratuko dira telelanarekin bateraezinak diren lanpostuak, hala nola herritarrak atenditzekoak, erregistro bulegoak, obrak, idazkaritzakoak eta bereziki babestutako datuak kudeatzen dituztenak.

Dekretuan jaso da, salbuespenez, aldizka telelana baimentzeko aukera izango dela, ezinbesteko kausaren bat dela eta jarduera aldi baterako eragozten edo eteten denean, ingurumen kutsadura dakarten jazoerak gertatzen direnean edo larrialdi egoeretan; iragan martxoan alarma egoera deklaratu zenean bezala, esate baterako.

Bestalde, arauak deskonexio digitalerako, atsedenerako aldia errespetatua izateko eta intimitaterako eskubideak onartzen ditu. Beraz, telelanean ari direnek eskubidea izango dute ezarritako prestasun ordutegitik kanpo egiten diren deiei edo mezuei ez erantzuteko. “Funtzionarioak beti izango du harremana lankideekin eta bere lanpostuarekin; izan ere, astean gehienez ere hiru egunez telelanean arituko dira, eta bi egunez modu presentzian egongo dute lan”.

“Telelangileak, gainera, lan bileretan parte hartuko du aldizka. Lanaldi presentzialeko egunetako batean denen arteko proiektuen bilerak eta koordinazio bilerak egingo dira, baina bilerak bideokonferentzia bidez egiteko aukera ere izango da”, zehaztu du Adolfo Lander Funtzio Publikoko zuzendariak.

Telelanera sartzeko, deialdi publikoak egingo dira aldian-aldian, eta lehenengoa udazken honetan egingo da, ziur aski.

Foru dekretuan zenbait irizpide ezarriko dira telelanerako eskabideak ordenatu eta lehentasunak ezartzeko. Besteak beste, nabarmentzekoak dira osasunari eta desgaitasunei loturikoak (desgaitasun iraunkorrak edo aldi baterakoak, mugikortasun arazoak eta abar), genero indarkeriaren biktima izatea, 14 urtetik beherako adingabeak edo mendekotasuna duten senideak norberaren ardurapean izatea eta ohiko bizilekutik lantokira dagoen distantzia.

Hautatutako pertsonen lan arloko helburu batzuk bete beharko dituzte, beren arduradunekin batera ezarriak, eta konpromisoa hartu beharko dute datuak babesteko eta esku artean izango duten informazioa segurtasunez erabiltzeko, bai eta hitzartutako prestasun orduak errespetatzeko ere. Lanerako behar dituzten ekipo informatikoak emango zaizkie, eta prestakuntza ere bai, laneko arriskuen prebentzioari, zibersegurtasunari, datuen babesari eta aplikazio informatikoei buruz.